



PROTOKOLOA HOZKADAREN KASUAN

► Hozkadak lesiorik egiten badu, Idiazabalgo Udalak aurretiazko eginbideen espedientea hasiko du, txakurra erroldatuta, eta halakorik ezean, jabea Idiazabalgo udalerrian bizi bada eta espedientea ireki duela jakinaraziko die Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari eta Foru Aldundietako Abere Osasuneko Zerbitzuei.

Hozka egin duen aberearen jabeak txakurra al baitariarenera eraman beharko du, amorruren aurkako nahitaezko kontrola egiteko. Al baitariak 14 egunean aberea hiru aldiz aztertuko du. Azken azterketan, al baitariak [ziurtagiria](#) emango du. Ziurtagiri hori Idiazabalgo udaletxean aurkeztu behar du presentzialki edo telematikoki.

► Erasotzerakoan hozkadarik egin ez bada, jabeak berak nahi duen al baitari ofizial edo gaitu batengana eraman beharko du txakurra; al baitariak animalia iren izaera arriskutsua den ala ez ebaluatuko du, eta egiaztagiri bat emango du. Jabeak espedientea izapidetuko duenari bidali beharko dio egiaztagiri hori

– Amorrua: Euskal Autonomia Erkidegoan amorruren aurkako txertoa ez da ezinbestekoa.

Txakurrarekin Espainiar Estatuko gainontzeko autonomia erkidegoetara joatekotan, txertoa beharrezkoa izango da. Munduko gainontzeko herrialdeen kasuan, gaiaren inguruan informatu zaitez bertaratu aurretik.

Hozka egin duen txakurra amorruren aurka txertatuta egongo balitz ere, al baitariak aztertu egin beharko luke aurrean aipatu bezala.